

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA
ETXEBIZITZA SAILA
Ingurumen Sailburuordetza
Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO
AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
Viceconsejería de Medio Ambiente
Dirección de Administración Ambiental

EBAZPENA, 2019ko uztailaren 19koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, Vitoria-Gasteizko HAPOn erabilera tertziari buruzko arau partikularretan asistentzia erabileraren bateragarritasuna arautzeko egindako aldaketaren irismen-dokumentua formulatzen duena.

AURREKARIAK:

2019ko apirilaren 24an, Gasteizko Udalak eskabidea egin zuen Vitoria-Gasteizko HAPOn erabilera tertziarioari buruzko arau partikularretan asistentzia erabileraren bateragarritasuna arautzeko egindako aldaketaren ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrak (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legeak (abenduaren 9ko 21/2013 Legea) xedatutakoarekin bat etorriz.

Eskabidean, Planaren zirriborria, legeria sektorialean eskatutako dokumentazioa eta hasierako dokumentu estrategikoa jaso ziren.

2019ko ekainaren 7an, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan eta planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen Dekretuak (urriaren 16ko 211/2012 Dekretua) 9. artikuluan ezarritako kontsulten tramitea egin zen. Ingurumen-organoak administrazio publiko eta interesdun hauei egin zien kontsulta:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Ebroko Konfederazio Hidrografikoa.
- Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza.
- Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritza.
- Ekologistak Martxan Araba.
- Ekozaleak, Elkartea Ekologista
- GADEN, Natura Defendatzeko eta Ikertzeko Talde Arabarra.
- Greenpeace Euskadi
- Arabako Natur Institutua (IAN-ANI)

Bestalde, data horretan bertan, eraginpeko administrazio publikoen eta pertsona interesdunen eskura jarri ziren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean planaren aldaketa puntualaren zirriborria, sektoreko legeriak exijitutako dokumentazioa eta hasierako dokumentu estrategikoa, planaren gaineko interesa izan zezakeen oro identifikatzeko asmoz.

Dagokion legerian ezarritako epea amaitzean Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren erantzuna jaso da.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 19. artikuluan dionaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren helburua da ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea eta ingurumenaren babes-maila handia bermatzea, garapen jasangarri bat sustatzeko helburuarekin.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikulua arabera, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek behar bezala bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa, betiere jardueren ondoriozko eragin metatzaileak eta sinergikoak kontuan hartuta.

Era berean, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 6.1.b) artikuluan ezarritakoa aplikatuta, planei eta programei ere ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egingo zaie, bai eta haien aldaketei ere, baldin eta Administrazio publiko batek onartzen baditu eta horiek legezko edo arauzko xedapen batek aginduta egiten eta onartzen badira Natura 2000 Sareko guneei eragiteagatik ebaluazio bat behar dutelako, 42/2007 Legeak aurreikusitako baldintzetan (42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondare eta Biodibertsitateari buruzkoa).

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio bateratua egin behar da (ingurumen-ebaluazio estrategikoa) arauaren I. eranskineko A) letran jasotako planei dagokienez, eta plan horien artean sartzen da Vitoria-Gasteizko HAPOren erabilera tertziarioari buruzko arau partikularretan asistentzia-erabilerearen bateragarritasuna arautzeko egindako aldaketa.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ohiko ingurumen-ebaluazioa hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak ingurumen-azterlan estrategikoaren irismena zehaztea, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek eskabideari erantsi beharreko dokumentuak xedatzen ditu 18.1 artikuluan eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatu egiten du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterlan estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterlan estrategikoaren edukiari buruzkoak, eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren I. eta II. eranskinetan jasotakoak, erreferentziatzko dokumentuaren edukiari eta ingurumen-jasangarritasun txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira eta honako hauek guztiak ikusi dira: otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra (Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babestekoa), abenduaren 9ko 21/2013 Legea (Ingurumeneko Ebaluazioari buruzkoa), urriaren 16ko 211/2012 Dekretua (planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena), apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena), urriaren 1eko 39/2015 Legea (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena), urriaren 1eko 40/2015 Legea (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa) eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Vitoria-Gasteizko HAPOren erabilera tertziarioari buruzko arau partikularretan asistentzia-erabilerearen bateragarritasuna arautzeko egindako aldaketaren ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua formulatzea, ingurumen-ondorioetarako bakarrik, eta honako baldintza hauen arabera:

1.- Planaren xedea

Vitoria-Gasteizko HAPOren erabilera tertziarioari buruzko arau partikularretan asistentzia-erabileraren bateragarritasuna arautzeko egindako aldaketak xede hau du: hirugarren adinekoentzat izango diren edo beste asistentzia-helburu batzuk izango dituzten egoitza pribatuak eraikitzen laguntzea, urbanistikoki erabilera tertziarioa (komertziala, bulegoak eta bankuak, ostalaritzakoa) emango zaien lursailetan.

Gaur egun, Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak (HAPO) asistentzia-erabilera bakar bat baimentzen du lursail horietarako: hirugarren adinekoentzako egoitzak, Administrazio Publikoaren menpekoak, eta honako honekin ordeztu nahi da hori:

- a) Asistentzia-zerbitzuen multzo handiago bat ahalbidetuko da (Plan Orokorrean erregulatutako edozein).
- b) Mendekotasunaren ordeztu, administrazio eskumendunaren homologazioa.

Proposatutako aldaketa hiri urbanizagarri edo urbanizaezinean aplikatuko litzateke, eta eragina izango luke etorkizunean erabilera tertziarioko lursail gisa kalifika daitezkeen edo jada kalifikazio hori duten lursailetan. Planaren eremuak, guztira, tertziariotzat kalifikatutako Vitoria-Gasteizko 69 lursaili eragiten die; guztira, 497.413 m². Lursail gehienak bizitegi-bilbe finkatuan sartuta daude, hiriaren barruan; zehazki, 69 lursailetatik 58.

Badira 3 lursail bizitegi-bilbe finkatuaren inguru periferikoan, Salburuako KBE/HBBEtik eta bere babes-zona periferikotik kanpo, landa-izaerako lurralde-eremu txiki gisa izendatuak. Bestalde, gainerako 8 lursailak Salburuako KBE/HBBEaren babes-zona periferikoan daude kokatuta.

Proposatutako aldaketak ahalbidetuko du bizitegi-eraikin asistentzialak eraikitzea, lehendik dauden orube batzuetan, non planeamenduak jada baimentzen dituen (eta egon badauden) beste erabilera batzuk, izaera desberdinetakoak: tertziarioa (bulegoak eta bankuak, merkataritza eta ostalaritza), kirola, hezkuntza, osasuna, asistentzia, kultura, ikuskizunak eta aparkalekuak (funtzionamenduan daude batzuk). Proposatutako aldaketaren inpaktua, berez, etorkizuneko eraikinen eraikuntzarekin lotutako obren exekuzioaren ondoriozkoa da.

2.- Ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentuaren edukia

Ingurumen-azterlan estrategikoak barne hartu beharko du abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako edukia, eta hori urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren (planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena) II. eranskinean jasotzen denarekin osatu beharko da, betiere aipatu Dekretuko I. eranskinean jasotakoa kontuan izanik.

Eremuaren ezaugarriak eta garatu nahi diren jarduketak kontuan izanik, gai hauek jasoko dira:

A. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak.

IV. Ingurumen Esparru Programa 2020 egitasmoan jasotako helburu estrategikoetan eta jarduketa-ildoetan oinarrituko da plana. Zehazki, kontuan hartu beharko da nola planak barne hartzen duen 1.3 jarduketa-ildoaren 9. jarduketa, zeinak honako hau ezartzen baitu: *«Lurralde-antolamendu adimentsu bat ezartzearen alde egitea, zeinak populazio-dentsitate handiagoak lehenetsiko baititu eta lurzorua erabileren konbinazioa eta lurzorua kontsumoaren optimizazioa bultzatuko baititu, betiere, lurzorua berrerabilera eta lehenagoratzera lehenetsita».*

Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko Lege Orokorrean bildutako irizpideak (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuan bildutakoak jaso beharko ditu.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 2. artikulua aplikatuz, honako hauek dira Planaren ingurumen-ebaluazioa gidatu beharko duten garapen jasangarriaren printzipioak:



- a) Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea eta lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barriadura eta mugikortasun behartua saihestea irisgarritasuna sustatzeko asmoz, lurzoruaren erabileren plangintza integratuaren, mugikortasunaren, eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzoria jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Baliabide naturalen kontsumo jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzoria eta materialak.
- e) Habitata eta espezieak, ingurumen naturala eta konektibitate ekologikoa zaindu eta hobetzea.
- f) Paisaia eta kultur ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- g) Energia-aurrezpena, energia berriztagarrien efizientzia eta erabilera sustatzea, baita kogenerazioa ere.
- h) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien mende bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- i) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabidearen erabilera jasangarria ere.
- j) Klima-aldaketaren aurreko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitzeko neurriak integratuz.
- k) Arrisku naturalak gutxitzea.

Ingurumen-ebaluazio estrategikoak baloratu beharko du proposatutako jarduerak nola integratzen dituzten aipatu garapen jasangarriko printzipioetatik ondorioztatutako ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasun-irizpideak. Horretarako, aukera bakoitzak izaera arauemailearekin helburuok betetzeko proposatutako neurriak/irizpideak identifikatu beharko ditu.

B. Ingurumen-ebaluazioaren esparru geografikoa

Planaren eremuak Vitoria-Gasteizko 69 lursail eragiten die; tertziario gisa kalifikatutako lursailak dira; guztira, 497.413 m². Lursail gehienak bizitegi-bilbe finkatuan sartuta daude, hiriaren barruan; zehazki, 69 lursailetatik 58.

Badira 3 lursail bizitegi-bilbe finkatuaren inguru periferikoan, Salburuako KBE/HBBEtik eta bere babes-zona periferikotik kanpo, landa-izaerako toki-entitate txiki gisa izendatuak. Bestalde, gainerako 8 lursailak Salburuako KBE/HBBEaren babes-zona periferikoan daude kokatuta.

C. Ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremuak

Natura-ingurunea babestu, zaindu eta hobetzeko, ekosistemen eta beren zerbitzuen galera eta erresilientziaren murrizketa mugatuz, lurzoruaren ordenamenduak planaren eremuan lehendik dagoen kapital naturala, hots, ingurumenaren arloan garrantzitsuak diren eremuak, kontuan hartu behar ditu erabakiak hartzeko prozesu osoan zehar:

- Aparteko natura-balioak dituzten eremuak: natura-ondarearen eta biodibertsitatearen gaineko oinarritzko legeria edo natura kontserbatzearen gaineko legeria aplikatuz emandako arau-xedapen orokorren edo nazioarteko hitzarmenen ondorio diren ingurumen-babeserako araubideren bat duten inguru guztiak eta lurralde-nahiz hirigintza-plangintzaren ondorio den araubideren bat duten natura-inguruneak.
- Kultura-balio garrantzitsuak dituzten eremuak: Ondare historiko-arkitektonikoaren zati direlako kalifikatuta edo inbentariatuta dauden eremuak edo ondasunak, eta ustezko arkeologia-eremuak.

Planak zuzenean eragiten duen eremua Salburuako hezeguneen babes-zona periferikoan dago (Natura 2000 Sareko naturagune babestua, ES2 11 0014 Salburua); zona horretan daude, zehazki, Salburua-15. sektoreko lursailak, baita Elorriagako Atea kalean dauden orubeak ere.



D. Jarduketak egiteko desegokiak diren eremuak

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterlan estrategikoak. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko aukera emango duena. Ingurumen ondorioetarako garrantzitsuak diren eremuak, txosten honetako aurreko paragrafoan jasotakoak, Planaren aldaketan aurreikusitako jarduketak hartzeko desegokitzat jotzen dira, horrela egitea aurretik deskribatutako helburuen aurkakoa izan baitaiteke.

Kontuan hartu beharreko ingurumen-arriskuei dagokienez, hauek dira garrantzitsuenak:

- Planaren eremuko oruberan bat Uholde Arrisku Handiko Arlo batean kokatzen da (ARPSI ES091-ARPS-ZAD-18, Vitoria-Gasteiz / Arrazua-Ubarrundia eta ARPSI ES091-ARPS-ZAD-01, Vitoria-Gasteiz), 10 eta 100 urteko errepikatze-denborako uraldiekin.

E. Egindako aurretiazko kontsultetako erantzunen ingurumen-azterlan laburra.

Jarraian, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten tramitean jasotako txostenetako ingurumen arloko eduki garrantzitsuenak laburbildu dira:

- Baimendutako erabileretako etorkizuneko eraikinetan bizi daitezkeen biztanleria kontuan hartuta, udalerrian dagoen zaratarekiko esposizioari eta aire-kalitateari buruzko azterketa bat egin behar da, eta, hala badagokio, neurri prebentiboak eta zuzentzaileak hartu behar dira obrak egin aurretik.

F. Ingurumen-azterlan estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Ingurumen-azterlan estrategikoak abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxienezko edukia izan beharko du, eta hori urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoarekin osatu beharko da. Aurrekoarekin bat etorritik, garatzen diren apartatuek honako eskema metodologiko honi jarraitu beharko diote:

1. Edukia, helburuak eta egokiak diren beste plan eta programa batzuekiko harremanak.
2. Ingurumenaren gaur egungo egoera.
3. Ingurumenean egon daitezkeen ondorio esanguratsuak.
4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak.
5. Aukerak hautatzeko prozesua.
6. Ingurumena zaintzeko programa.
7. Laburpen ez-teknikoa.

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, ingurumen-azterlan estrategikoak (aurrerantzean, Azterlana) gutxienez hurrengo alderdietan sakondu behar luke, jarraian adierazitako zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

1. Edukia, helburuak eta beste plan eta programa batzuekiko harremanak

Azterlanak planaren helburu nagusien laburpen labur bat izango du, eta beste plan eta programa lotuekin dituzten erlazioei buruzko azterketa labur bat. Gainera, ingurumen-alderdiak planaren aldaketaren prestaketan nola txertatzen diren azaldu beharko du. Aztertu beharko da planaren aplikazioak nola laguntzen duen ingurumen-helburuak txertatzen.

Azterlanak era espezifikoan justifikatu beharko du nola hartu diren kontuan planaren aldaketa egitean Ebazpen honetako A atalean ingurumena babesteko jaso diren helburuak eta printzipio eta irizpide jasagarriak. Justifikazio horrek adierazleak eta mugak erabiliko ditu, bai arauetan ezarritakoak bai planak berak aldeztu aurretik adierazitako helburuak



betetzeko izaera arauemailearekin proposatutakoak, aukera bakoitzak eskaintzen dituen neurri/irizpide zehatzak identifikatuz.

2. Ingurumenaren gaur egungo egoera

Azterlanak ingurumenaren egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak deskribatu beharko ditu, eragin nabarmenak jasan ditzaketen guneen ingurumen-ezaugarriak zehaztuz eta planaren aldaketa aplikatu ezean gune horiek izan dezaketen bilakaera azalduz, klima-aldaketa bera ere kontuan izanik.

Era berean, garrantzitsua izan daitekeen edozein ingurumen-arazo identifikatu behar da, baita ebazpen honetako C atalean ingurumenaren aldetik nabarmentzat jotako edozein gunerekin erlazioatutako arazoak ere.

Era berean, lurraldearen ingurumen-unitate homogeneousen definizio bat gauzatuko da horien paisaia-ezaugarrien eta baliabide naturalen azterketa integratutik abiatuta.

Lehen aipatutako ingurumen-alderdiak era kartografikoan adierazi beharko dira, planaren aldaketa honen izaera espezifikokoarekiko eskala proportzionatuan.

Ingurumenaren gaur egungo egoeraren deskribapena ingurumen-adierazleen erabileran bermatu beharko da; horretarako, Ingurumen Esparru Programaren adierazleen oinarritzko panelean jasotakoak erabili ahal izango dira, baita lurraldeari eta ingurumenari buruzko Eustatenak ere, eta Ebazpen honetako aurreko apartatuetan adierazitako ingurumen-helburuen bilakaerari buruzko informazio garrantzitsua eman dezaketen beste batzuk.

Kontuan izan beharko dira, gutxienez, EAEko lurraldeko adierazle hauek:

- Eremu osotik, planteatutako beharizana hornitzeko eraldatu behar den azalera naturalaren ehunekoak.
- Espazio libreetara zuzenduko den azaleraren ehunekoak.
- Atmosfera-, soinu- eta argi-kutsaduraren adierazleak.

Azterlanak aipatutako adierazleei buruzko datuak izan beharko ditu edo, halakorik ez badu, alderdi berak adierazten dituzten beste adierazle batzuei buruzkoak, kasu bakoitzean datu zehatzak lortzeko zailtasunak justifikatuz, halakorik izatekotan. Era berean, proposatzen diren beste adierazle batzuei buruzko datuak jaso beharko ditu azterlanak, ingurumen-zaintzako programa aplikatzeko erreferentziako ingurumen-egoera zehaztuta gera dadin.

3. Ingurumenean egon daitezkeen ondorio esanguratsuak

Atal horretan ingurumenean eragin ditzakeen ondorio adierazgarriak aztertu beharko dira, honako alderdi hauek barnean hartuta: biodibertsitatea, biztanleria, gizakien osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, kultura-ondarea, ondare historikoa barne, klima-faktoreak, klima-aldaketan izan dezakeen eragina -bereziki, Planari lotutako karbono-aztarnaren ebaluazio egokia-, ondasun materialak, kultura-ondarea eta paisaia; faktore horien arteko interakzioa ere kontuan izan behar da, eragindako ekosistemek eskainitako ingurumen-zerbitzuak ere ebaluatuz. Ondorio horiek barnean hartu behar dituzte zeharkako ondorioak, metaketak, sinergiak, epe labur, ertain eta luzerako ondorioak, iraunkorrak eta aldi baterakoak, positiboak eta negatiboak.

Planaren aldaketa aplikatzearen ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat garatuko du azterlanak, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzakete. Horrela identifikatutako ekintza bakoitzerako, espero daitezkeen ingurumen-ondorio gertagarriak deskribatuko dira eta, hala behar denean, ingurumen-ondorio kaltegarri jakin bat gertagaitza dela justifikatu beharko da. Eta identifikatutako inpaktu guztietatik berariaz nabarmendu beharko dira garrantzitsutzat hartutakoak.

Horrela identifikatutako ekintza bakoitzerako, espero daitezkeen ingurumen-ondorio gertagarriak deskribatuko dira eta, hala behar denean, ingurumen-ondorio kaltegarri jakin bat gertagaitza dela justifikatu beharko da.

4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak

Ingurumen-ebaluazioaren azken faseetan, aukerarik egokiena hautatu ondoren, hartu beharreko neurri prebentibo, zuzentzaile eta, azken buruan, konpentsatzaileak garatuko dira, identifikatutako eraginak arintzeko; horrela, ingurumen-azterlan estrategikoan bertan ezarritako baldintzetan, planaren aldaketak ingurumenean ondorio esanguratsurik ez duela sortuko bermatuko da. Ahal den heinean, proposatutako neurrietako bakoitza zein garapen-tresnatan inplementatuko den zehaztuko da.

Lurraldearen lotura ekologikoa ziurtatzeko behar diren neurri, arau edo erregulazioak proposatuko dira.

Horrez gain, planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako proiektuak identifikatu beharko dira garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzean sortutako eraginak gutxitzeko gidalerroak ezartzeko.

5. Aukerak hautatzeko prozesua.

Honako hau bilduko da: aukerak hautatzeko prozesuaren laburpen arrazoitu bat, bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta ingurumen-arlokoa eta HAPOren helburuekiko bat-etortzea eta proportzionaltasuna justifikatuko dituena, batez ere ingurumen-helburuekin lotuta (zehazki, uholde-arriskua). Gauza bera egingo da espazio libreterako lursail-erreserbak zehazteko. Análisi horretan, ebaluazioa egiteko modua deskribatuko da, bai eta aurkitutako zailtasunak ere; esate baterako, eskatutako informazioa biltzean aurki litezkeen gabetia teknikoak, edo ezagutza eta eskarmentu falta.

6. Ingurumena zaintzeko programa.

Aztelanak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du. Programa horretan, planaren aldaketa aplikatzeak ekarriko dituen ondorioak gainbegiratzeko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Ingurumena zaintzeko programan adierazleak deskribatuko dira eta, behar izanez gero, ondorio garrantzitsuenen erreferentziako balioak, bai positiboak bai negatiboak.

Ingurumena zaintzeko programak azterlanean Ebazpen honetako F.2 atala betetzeko proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu. Era berean, kasuan-kasuan datuak zein periodikotasun eta metodologiaren bidez jasoko diren azaltzeko proposamen zehatz bat ere jaso beharko du.

7. Laburpen ez-teknikoa.

Azterlanak barnean hartuko du aurreko epigrafeen arabera emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, herritarrek oro har ulertzeko moduko eta aztertutako alderdi guztiak lantzen dituen informazio zehatzarekin, baita informazio grafikoarekin ere, dokumentu autoaskia eta azterlanarekiko berarekiko independentea izan dadin.

G. Hasierako onespeneren ondoren sustatzaileak kontsultatu beharko dituen eraginpeko administrazio publikoak eta publiko interesduna

Ebazpen honetako kontsulten izapidea betetzeko erabilitako zerrenda huraxe hartuko da gai honen eraginpeko administrazio publikoen eta pertsona interesdunen zerrenda osatzeko, halaxe xedatzen baita urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan. Ingurumen-organoak, ebazpen honetako aurreko ataletan aipatu bezala, honako hauei kontsulta egin die:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.



- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Ebroko Ur-konfederazio Hidrografikoa.
- Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza.
- Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritza.
- Ekologistak Martxan Araba.
- Ekozaileak, Elkartea Ekologista
- GADEN, Natura Defendatzeko eta Ikertzeko Talde Arabarra.
- Greenpeace Euskadi
- Arabako Natur Institutua (IAN-ANI)

H. Jendaurreko informazioaren eta kontsulten modalitateen, iraupenaren eta epeen definizioa

Organo erabakitzaileak, edo hala badagokio sustatzaileak (aztergai dugun honetan biak bat datoz) Plan honen hasierako bertsioa zein ingurumen-azterlan estrategikoa jendaurrean jarriko ditu, gutxienez 45 egunez. Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan ezarritakoaren arabera, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak kontsultatutako erakundeen iritzia jaso beharko du.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 17. artikulua araberak, gehienez ere hamabost hilabeteko epea izango da Azterlana eta arauaren 21. eta 22. artikuluetan aurreikusitako kontsultak egiteko eta informazio publikoaren prozedura betetzeko, irismeneko dokumentu hau erakunde sustatzaileari jakinarazten zaion egunetik aurrera.

I. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikulua araberak, kualifikazio profesional eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoa duten pertsonak egin beharko dute Azterlana, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du. Azterlanaren egileak identifikatu egin behar dira, haien titulazioa eta, hala badagokio, lanbide arautua adierazita. Identifikazioak barne hartu beharko ditu izena, abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren edo helburu bererako beste edozein agiriren kodea (elkargokide-zenbakia entregatuz gero, horrek bat etorri behar du elkargo profesional jakin baten erregistroarekin). Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Azterlanaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira horiek, Administrazioak berak frogagarri gisa emandako datuei dagokienean izan ezik.

Dokumentazioa aurkezteko, jarraibide hauek bete beharko dira:

1. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuek koherentzia egokia errespetatu beharko dute, haien artean nahiz aurretik aurkeztutakoekin, halakorik bada, hartara erabakia hartu behar duten administrazio-organoen lana erraztuz eta ez eragotziz.
2. Arreta berezia jarri beharko da kasu bakoitzean dokumentu teknikoen apartatuak haien artean erlazionatzea ahalbidetzen duten datuak adieraztean (esaterako, apartatu batean proiektuko ekintzak deskribatzen badira eta beste batean ekintza horiek eragindako ingurumen-inpaktuak, bi kasuetan ekintzak izen berarekin aipatu beharko dira).
3. Beharrezkoa bada, datuak zein iturritatik lortu diren adierazi behar da.
4. Planaren, programaren edo proiektuaren dokumentazio grafikoa eta kartografikoa sartu behar da hala eskatzen duten ataletan. Planoak pdf formatuan entregatu beharko dira, georeferentziatuta.
5. Analisi tekniko egokia errazteko, pantailaratzeko pdf formatuko artxiboez gain, planoen kopia gehigarri bat entregatu beharko da shape formatuan (ahal dela, UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema erabilita), 10 Mb-koa baino gutxiagokoa izan beharko dena.



6. Plano guztiak kodearekin eta tituluarekin identifikatu behar dira. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den.
7. Jatorrizko eskalatik murriztutako planoak aurkeztuz gero, zuzendu egin beharko da planoan jatorrian adierazitako eskala, aurkeztutako planoan oinarritutako neurketek ez dezaten akatsik izan.
8. Testuetan zehar aipaturiko eranskin, irudi, plano edo argazki guztiak dokumentazioarekin batera aurkeztuko dira. Erreferentzia horiek kasuan kasuko elementua erraz aurkitzeko moduan egingo dira, argi eta garbi.
9. Informazio jakin bat dokumentuko apartaturen baten zuzenketa gisa aurkeztekotan, eta aldi berean espedientean zuzendu nahi den apartatua mantentzen bada, informazio berriak adierazi beharko ditu zuzenketaren ondorioz jatorrizko dokumentuan ezeztatutak edo ordezkaturak jo beharreko kapituluak, orrialdeak, epigrafeak, apartatuak, lerroak, esaldiak, koadroak, irudiak, planoak eta abar. Aurreko informazioaren bat osatzen edo zuzentzen duen informazioak egoera horren berri eman beharko du hasieran. Eskaera bat zuzentzeko aipaturako jarraibideak betetzen ez badira, izapide gehigarri bat eskatu ahal izango da, kontraesanezko edo inkongruenteak izan daitezkeen alderdiak argitzeko, eta horrek atzerapena eragin dezake prozeduraren ebazpenean.
10. Eskaera IKS-eem sistemaren bidez aurkeztu beharko da, aplika daitezkeen eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean eskura daitezkeen fitxak eta inprimakiak erabilita, zehazki, helbide honetan: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-orokorra/es/contenidos/informacion/guia_iks/es_def/index.shtml
11. Dokumentu bat .pdf formatuan aurkeztzen denean, gehienez 30 MB izango ditu eta bilaketak egitea ahalbidetu beharko du. Dokumentu handiagoak zatitu egin beharko dira, sisteman sartzeko.
12. Aurkeztutako dokumentazio guztiaren aurkibide oso bat gehituko da, apartatu bakoitza zein orrialdetan dagoen zehaztuta. PDF dokumentu baten aurkibidea ematen denean, adierazitako orrialde-zenbakia bat etorriko da orrialde hori topatzeko irakurketa programaren «Joan orrialde honetara» aginduan adierazi behar denarekin.
13. Organo sustatzaileak, datuen transmisioan, datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzen duela bermatu beharko du beti.

Bigarrena. - Ebazpen hau Gasteizko Udalari komunikatzea.

Hirugarrena. - Ebazpen hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 19a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria
Director de Administración Ambiental

IVAN PEDREIRA LANCHAS